

Apaizen beatifikazioa

Eta Aitzol zergatik ez?

Vatikanoko San Pedro plazan Gerra Zibilean hildako bostehun elizgizon beatifikatuko dituzte urriaren 28an. Apezpikuen erabaki honek izaera politikoaren itzala du atzean, Memoria Historikoaren Legearen eztabaida puri-purian dagoen honetan. Beatifikatuko dituzten apaizen artean ez dago frankistek fusilaturiko euskal apaizik. Utzikeria? Aspaldiko posizio politikoaren isla?

JOSU CHUECA

498 BEATU BERRI izanen dituzte fededun katolikoek urriaren 28tik aurrera. Bejondeiela! Escriba de Balaguer aldaretara igo zutenetik herdoildua zuten beatifikatzeko edo santifikatzeko tresneria. Baina orain, 1936-1939ko Gerra Zibila dela-eta oroimen historikoa indartu den garaian, Elizak bere martiriaren ekarpena egin nahi du.

Apezpikuek eta Elizako bozeramaileek ukatu egin dute ospakizun horrek zer ikusirik duenik gerra zibileko errepresio frankistaren memoria berpiztu duen mugimenduarekin; are gutxiago, instituzio horrek izan zuen jokabidea –altxatuen aldekoa– zuzitzeko izan zitekeenik. Orain arte, nahiz eta Estatuan barrena maila desberdinetako ekimenak izan –hildakoen gorpuzkinak bilatu eta hobitiki ateratzea; *Izen Guztiak* leloa daraman proiektu erraldoia; Parlamentuan Oroimen Historikoaren Legea eztabaidatzea...–, Eliza jardun horietatik guztietatik landa gelditu da.

Estropezu handia

Gerra Zibilaren esparrua guztiz isildua izan du Elizak, baina oraingoan estropezu handiz sartu da bertan. Francoren garaietatik bilduta zeuden Antonio Montero apezpiku eta ikerlariaren datuetan oinarriturik, 36ko biktimen artean bostehun kleriko inguru berreskuratu ditu erakunde honek, memoria historikoaren balantza beraien alde orekatu nahian-edo. Helburu horrekin jarri dute martxan beatifikazio prozesu erraldoia apezpikuek. Izan ere, beatifikatu behar dituzten elizgizonak ez ziren ezezagunak eta ez zeuden ahazturik. Kasu gehienak, gerra amaitu bezain laster, frankistek bultzaturiko *Causa General* delakoan jaso zituzten, ondorio guztiekin. Geroxeago, arestian aipatutako Monterok eta antzeko ikerlari erlijiosoek behin eta berriro azaldu zituzten alde errepublikanoan izandako biktimen horien patu eta gorabeherak.

Baina beste biktimen eta gertakizun batzuen berri bazuten Elizako hierarkek. 1936ko uztailaren



EUSKO APAIZ TALDE

Jose Ariztimuño Aitzol. 1936ko urrian harrapatu zuten *Galerna* baporean eta bi egun geroago fusilatu zuten frankistek. Ez bera, ezta gainerako 15 apaiz euskaldunak, ez daude Erroman beatifikatuko dituztenen zerrendan.

armetan altxatu zirenek kolpearen kontra zeuden hainbat erlijioso eta apaiz hil zituzten, eta altxamendu faxistaren sustatzaile sutsu ziren sotandunek erailketen salaketa zehatzak jaso zituzten. Horrela, erbestean zegoen Mateo Mugika Gasteizko apezpikuak, Alberto Onaindia kalonjeak, baita Eusko Jaurlaritzaren ordezkariak ere, Bizkaian, Nafarroan eta bereziki Gipuzkoan, frankistek egindako apaizen fusilatzeen informazio

zehatza luzatu zioten Vatikanuari. 1936ko azaroaz geroztik, *Gurutxadakoek* apaiz euskaldunak fusilatzeari utzi bazioten ere, sekula ez zituzten exekuzio horiek aitortu, hori ametitzea, beraiek aldarrikatzen zuten *Gurutxadaren* kontraesan galanta onartzea bailitzateke. Alderantziz, tenpluetako hormetan, gerraren ondorioz hildakoen izenak zizelatzean, edo *Causa General* ikerketa orokorra idatzi zutenean, erabat baztertu zituzten alde nazionalak eragindako errepresioaren biktimak.

Bigarren mailako martiriak

Gauza bera burutzero doaz urriaren 28ko ospakizun handi horrekin. Izan ere, Gerra Zibila amaitu zenetik 70 urte betetzear daudelarik, frankistek 1936ko udazkenean hil zituzten Jose Ariztimuño *Aitzol*, Martin Lekuona, Jose Sagarna, Gervasio Albizu, Jose Arin, Jose Markiegi... eta beste euskal apaizak, ez ditu Elizak 498 horien pare jarri. Jakina, besteak bezain biktimak edo, hizkera kristaua erabiliz, besteak bezain martiriak izan beharko lukete. Inolako prozedura legalik gabe atxilotu ostean, kartzelaldi laburrak eta jipoiak jasan eta gero, fusilatuak izan ziren Hernani aldean, Oiartzungo hilerriko hormetan eta bide bazterretan. Beraien errua, euskaltzale izatea edo faxisten aldeko atxikimendurik ez adieraztea. Atxiloturiko apaiz batzuei nolabaiteko itaunketak egin zizkieten arren —Aitzol eta Jose Adarragari adibidez—, orain arte ez da azaldu prozedura horien arrastorik. Hala ere, testigantzen bitartez eta karteletako aipu apurrei esker, ongi dakigu ustezko askatasunez kaleratutako elizgizonak erail egin zituztela, Elizaren defendatzaileen aldekoek erail gainera.

Eraiketa horiekin ez zen amaitu euskal eliztarren aurkako errepresioa. Santoñako errendizioan, euskal armadan aritutako kaperau gehienak atxilotu zituzten. Erbestera joateko aukera izan ez zutenak, El Dueson,



EUZKO APAIZ TALDE

Carmonako kartzelan euskal apaizei egindako argazkia (1939ko azaroaren 5a). Erdiko ileurdina Julian Besteiro buruzagi sozialista da, kartzela berean hila. Haren ondoan dagoena kartzelako zuzendaria da; argazkia Europa osora zabaldu zenean kargutik kendu zuten.

Dueñasen, Carmonan eta Porlierren izan ziren giltzapean hainbat urtez, *Gurutxadaren* aldeko ustezko batasun erlijiosoa kolokan jarritz. Altxamenduaren eta gerraren alde aritu zen hierarkia katolikoak euskal eliztar disidenteen aurkako joera militantea izan zuen. Constantino Bayle jesuita, Pedro Altabella, baita Goma kardinala edo Lauzirika apezpikua ere, saiatu ziren eliztar “heterodoxo” horien jokabidea zikintzen eta desohoratzen. Azken batean, frankistek erail ez balituzte bezala, edozein erruren aitortza alboratu nahi zuten.

Orain, 70 urte igaro direnean, eta historiak bakoitza bere lekuan jarri duenean, Elizak orduko eskizofrenia berberarekin jotzen du. Batzuk aldaretan ezarri nahi dituzten bitartean, besteak hutsaren hurrengoak bailiran zokoratu dituzte. Eta kasu! Katolikoek kontua dirudien arren, oroimenaz eta iraganaz arduratzen den edonork, oso kontuan izan beharko lituzke jokabide horiek, historia gertatu zen bezala ezagutzeko eta 1936-1939ko tragedia luze horren ertz eta erantzukizun orotaz jabetzeko. Hor dugu gakoa, antzemateko zergatik Elizak berriz baztertu nahi dituen, modu zakarrean, gaizkile frankistek bazterrean utzi zituzten erlijoiakideak. ■

70 urte igaro direnean, eta historiak bakoitza bere lekuan jarri duenean, Elizak orduko eskizofreniarekin jotzen du

